

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ibilbide toponimikoa

GARAI BATEKO itsasontzi bikainak egiteko, Ipinabarren basoetatik errioetako ontzioletara, gurdi motzek eta lerek harkaitzetan utzitako arrasto paraleloen ibilbidea hizpide nuen atzenekotan. Baita Ipinabar izena jasotzen duten eta neuk ezagutzen nituen toki urriak ere. Idatzi banuen idatzi nuen! Argitaratu aurretik irakurri duten lagunek euria siulaka ari duenean bezala parrastan bota didate ustez ipinabarretik datorren toponimo mordoa. Batean eta bestean izen honen eskizian gehiago sakondu ez izanaz damu naiz eta astinaldia eta errieta erretolika merezi nuen. Eta emaitza polita: Zeanuriko Ipiñaburu auzoa eta Ipiña Jauregia, Ugaoko Ipiña etxeak, Euskaltzaindiaren onomastika sailean bildutako Ipiña, Ipiñaugarte, Ipiñazar eta Ipiñarrieta abizenak, Soruluzeko Ipiñarrieta baserria eta Urretxuko Ipiñarrieta jauregia, Bergarako Ipiñarri eta Ipiñarriaga baserriak, Murgian Ipinabar, Zestoako Ibaña-



Amerikan ere bada. Hona Mexikoko San Luis Potosí hirian dagoen Ipiña eraikina.

rrieta, Iñabarrietamendi, eta... ipiñabar. Ibañetaraino ere joan zait bateren bat. Toponimiaza-leek badute, nahi izatera, zer egina.

Ipinabarren hau behingoz amaitzeko ohar txo bat: ipinabarren inausketa otsailaren 20aren eta martxoaren 25aren artean egiten zen. Aparteko arrazoi bereziren bat izanez gero azaroran edo abenduan egin zitekeen, baina urte amaierako sasoi hori ez zen ez inolaz ere ohikoa. Lehen ere bazekiten bai zuhaitzak inausketa, epaitzeko, garai onena izerdi berriaren etorrerakoa dela. Txoko honetan bertan Epaila Martxotzen ari ginela nioenak argia ikusi zuela urteak dira.

Aranokoa zen nik ezagutzen ditudan Ipinabar bakanetako bat eta handik heldu behar diot berriz landare ibilbide honi. Eta

toponimozaleekin ari garenez, hona nafar txoko honetan arreta erakartzen didan horietako bat: Amalkandarieta. Bai polita!

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Zalantza bat daukat: piku arbola bati, adarrak kendu eta landatzeko, noiz eta nola egin behar dut? Mila esker. Nerea Larrañaga (Azpeitia).

Aupa Nerea! Ondo diozun eran pikondoa (*Ficus carica*) adarrak moztu eta lurrean sartuz ugaltzen da. Neguaren amaian egiteko lana da, lurra epeltzen hasi eta urte berriari ekiteko kimuak zabaltzear denean. Izerdi berri hau izango da itsasteko sustrai berriak emateko motorra.

Gustuko duzun pikuak ematen dituen arbolari metro bete inguruko adarra moztu. Aitzurrarekin zanga bat egin eta luze-luze bertan sartu, adarraren muturra arra bete inguru bistan utzita. Lurpean sartutako adar-begiek sustraiak emango dituzte eta bistan daudenek hostoak. Horra pikondo berria. Lehen udaran ura emanez lagunduz gero erraz itsatsiko da. Piku on!



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberrri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertza 28, beheko solairua, B12 lokala
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberrri@luberrri.biz • www.luberrri.biz